

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIN  
SINATUTAKO EKONOMIA ITUNEKO  
ARBITRAJE BATZORDEA**

Gatazka: 16/2008

Administrazio interesatuak:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Estatuko Administrazioa

**Xedea:** BEZa. Saldoen lekualdaketa**Beste gai batzuk:** Arbitraje Batzordearen eskumena: ebatzitako auziak edota auzitegiek ebazteko daudenak.**Ebazpena: R4/2008****Espedientea: 16/2008**

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 22an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna lehendakari eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador jaunak batzordekide dituenak, ondoko

**ERABAKIA**

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurka planteatutako eskumenen inguruko gatazkaren gainean, hain zuzen, 53.496,70 euroko saldo negatiboa itzultzea dagokion Administrazio eskudunari erreferentzia egiten diona. Zenbateko hori (Erakundea) erakundeak (IFZ B-NNNNN) aipatutako aldundiaren aurrean eskatu zuen 2006ko BEZaren aitorten-likidazioaren (urteko laburpena) emaitza da, eta Arbitraje Batzordeak 16/2008 espediente zenbakiarekin izapidetutako erabakia da hau.

**I. AURREKARIAK:**

1. Eskumenak direla-eta sortutako gatazka hau 2008ko maiatzaren 13an erregistratu zen Arbitraje Batzordean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantzen foru diputatuak sinatutako idazki baten bidez.

(Erakundea) erakundeak 2006ko urriaren 3an aldatu zuen bere zerga-egoitzaren kokapena, hain zuzen, lurralde erkidean dagoen (Udalerrria) udalerritik (A Coruña probintzia), euskal foru lurraldean kokatutako Irungo

udalerrira (Gipuzkoa).

**2.** Gatazkaren planteamenduak azaltzen duenez, (Erakundea) erakundeak idazki bat aurkeztu zion Gipuzkoako Foru Ogasunari abuztuaren 3an, 2006ko ekitaldiari zegokion BEZaren saldo negatiboa itzul ziezaion. Eskaera, baina, 2007ko irailaren 28an ukatu egin zen, Kontzertu Ekonomikoaren Legearen (KEL) 27.1. artikulua hiru puntuan aurreikusitakoaren arabera, ezin baitira higitu lurralde erkidean kokatutako zerga-egoitzetan jasandako kuotak, egoitza horiek foru lurraldera aldatzen badira.

**3.** Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako administrazio-espeditetik ondorioztatzen da (Erakundea) erakundeak aurretik –zehazki 2007ko urtarrilaren 22an– urteko aitopen-laburpena (390. eredua) aurkeztu ziola Zerga Administrazioarako Agentzia Estatalari (ZAAE), 2006. urteko lehenbiziko hiru hiruhilekoei zegokion BEZa itzultzeko eskatuz; ez zion, ordea, autolikidaziorik aurkeztu Agentziari, 2006ko laugarren hiruhilekoari zegokiona itzul ziezaion eskatzeko. Zerga Administrazioarako Agentzia Estatalak (ZAAE) 2008ko azaroaren 4an egindako arrazoibideen idazkiak, geroago aipatuko duguna (ikus 16. aurrekaria), berretsi zuen aipatutako espediente hori.

**4.** Gipuzkoako ZAAEko ordezkartzaren Zerga Kudeaketarako Bulegoak 0 euroko behin-behineko likidazio proposamenaren berri eman zion zergadunari, 2007ko ekainaren 7an. 2007ko ekainaren 19an, zergadunak alegazioak egin zizkion proposamenari. Adierazi zuen Ekonomia Itunak ez duela behar bezala arautzen ordaindu gabeko BEZaren saldoen lekualdaketa, eta bere ustez, ZAAEk duela dirua itzultzeko ardura, 2006ko urrian zerga-egoitzaren kokapena lurralde erkidetik foru lurraldera aldatu bazen ere.

**5.** ZAAEk ukatu egin zituen (Erakundea) erakundeak aurkeztutako alegazioak, eta likidazio proposamena aldatzeko eskaera gaitzetsi zuen. Horrela, 2007ko uztailaren 11n, behin-behineko likidazioaren berri eman zion zergadunari, KELk ez baitu galarazten Administrazio batetik bestera ordaindu gabeko saldoak lekualdatzea, lege horren arabera, zerga-egoitza administrazio batetik bestera aldatzea ez baita jarduera bukatutzat hartzen utzitako lurraldean,

eta jarduera berritatzat jotzen egoitza berrian.

**6.** Abuztuaren 3an berraztertzeako errekurtsua jarri zuen zergadunak, behin-behineko likidazioaren aurka. Eskatutako itzultzearen jatorria alegatu zuen horretarako, diru hori zerga-egoitza lurralde erkidean kokaturik egon zen hiru hilabetei baitzegokion. Egun horretan bertan, berraztertzeako errekurtsua jartzearekin batera, diru kopuru bera itzultzeko eskaera aurkeztu zion Gipuzkoako Foru Ogasunari (Ikusi 1. aurrekaria), eta lehen aipatutako gaitzespenak jaso zituen horrek.

**7.** Gipuzkoako ZAAEko Zerga Kudeaketarako Bulegoak atzera bota zuen berraztertzeako errekurtsua, 2007ko abuztuaren 24ko akordio baten bitartez (Irailaren 4an eman zen horren berri).

**8.** 2007ko irailaren 28an, zergadunak administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri zuen Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegian (EEAE), berraztertzeako errekurtsua atzera bota izanagatik. Berriro ere datek bat egin zuten, izan ere, egun horretan bertan atzera bota zen Gipuzkoako Foru Ogasunari zuzendutako itzultze eskaera (Ikusi 2. aurrekaria).

**9.** Martxoaren 13an onetsitako 253/2008 Foru Aginduak ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak ez zuen eskumenik 2006ko aurreneko hiru hiruhilekoei zegokien BEZa itzultzeko. Estatuko Administrazioak eta, zehazki, ZAAEk zuen hori egiteko eskuduntza. Estatuko Administrazioak 2008ko martxoaren 14an izan zuen Foru Aginduaren berri.

**10.** Euskal Autonomia Erkidegoko ZAAEko ordezkari nagusiaren ustez, Gipuzkoari eskumenik aitortu ez izana bidegabea zen. Hala azaldu zuen 2008ko apirilaren 17an egindako idazkian, Ogasun eta Finantzen foru diputatuari zuzendurik zegoena, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak apirilaren 21ean jaso zuena.

**11.** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2008ko maiatzaren 6an hartutako xedapenaren bitartez, Arbitraje Batzordeari eskumen

gatazka negatiboa aurkezteko erabakia hartu zuen.

**12.**2008ko maiatzaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumen gatazka negatiboaren aurkezpenaren berri eman zion (Erakundea) erakundeari, jakinarazpenak preskripzio epea geldiarazi eta iraungipena eten egingo zuela adieraziz.

**13.**2008ko ekainaren 26an, Euskal Autonomia Erkidegoko EEAEk, (Erakundeak) jarritako administrazioarekiko diru-erreklamazioa gaitzetsi egin zuen ebazpen baten bitartez. Aipatutako gaitzespenaren aurka, zergadunak deuseztatzeko errekurtoa aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren EEAEen, 2008ko uztailaren 22an, Kontzertu Ekonomikoaren Legearen 239. artikuluari jarraiki. Hura ere gaitzetsi egin zuen EEAEk, 2008ko uztailaren 29ko akordioaren bidez. Funtsean, errekurtoak Gipuzkoako Foru Aldundiak gatazkaren aurkezpena Arbitraje Batzordean aurkeztu izana hartu zuen oinarri. Izan ere, hori horrela izanda, KEL eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren (EIABA) aurreikuspenei jarraiki, EEAEk ezin du prozedurarekin segitu. Ekonomia arrazoiak direla-eta, zuzenbideko oinarriak zehaztu diren azalpenean ez ditugu kronologikoki zerrendatuko deuseztatzeko errekurtoa gaitzestea eragin dituzten aurrekari faktikoak.

**14.**(Erakundea) erakundeak 2008ko irailaren 13an Arbitraje Batzordeari zuzendutako idazkiaren bitartez, aditzera eman zuen administrazioarekiko auzi-errekurto bat aurkeztu zuela (2008ko irailaren 9an, 1156/08-1<sup>a</sup> prozedura arrunta) EEAEk 2008ko ekainaren 26an emandako ebazpenaren aurka. Nolanahi ere, ez zuen abian jarri inolako prozedurarik deuseztatzeko errekurtoaren gaitzespenaren kontra egiteko. Idazki horretan, informazioa emateaz gain, 2006. urteari zegokion BEZa itzultzeko eskumena duen Administrazioa erabaki zezala eskatu zion zergadunak Arbitraje Batzordeari. Desadostasunak daude Administrazioarekiko auzi-errekurtoa ipini zen egunaren inguruan, izan ere, ZAAEk adierazi zuenez (Ikusi 16. aurrekaria), zergadunak irailaren 17an aurkeztu zuen errekurtoa. Dena dela, desadostasun horrek ez du inolako eraginik gure egitekoan, bai zergadunak, bai ZAAEk baieztatu baitzuten administrazioarekiko auzi-errekurto bat bazegoela.

**15.**2008ko urriaren 3an, Arbitraje Batzordeak gatazkaren aurkezpena jakinarazi zion ZAAEri, hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumenak zirela-eta aurkeztu zuena. Gauzak horrela, EIABAko 16.2. artikulua amaierari jarraiki, hilabete bateko epea eman zion egokitzat zeuzkan alegazioak aurkez zitzan, eta egokiak irizten zizkion frogak eta agiriak ekar eta proposa zitzan.

**16.**2008ko azaroaren 8an, aurreko puntuko izapidea bete zuen ZAAEk. Benetakoak zeritzon gertaeren berri eman eta egindako *petitum*-a defendatzeko egokiak iritzi zizkion zuzenbideko eskubideak aurkeztu ostean, gatazka onar ez zezala eskatu zion Arbitraje Batzordeari, gatazka judiziala zela argudiatuz, eta EIABAko 9. artikulua aurreikusitako auzi mota horien inguruan dioenari eutsiz; onartu ezker, Gipuzkoako Foru Ogasunak aurkeztutako uzia gaitzestea eskatu zion.

**17.** BEZaren hiru hilez behingo edo hilabetekako autolikidazioak subjektu pasiboaren zerga-egoitzari zegokion Administrazioan aurkeztu ziren, eta horretan oinarritu zen, hain zuzen, *petitum* subsidiario hori. Haatik, itzultzeko eskaera egitea erabakitzeotan, BEZaren Legearen 115. artikulua arabera, abenduaren 31n aplikatuko da subjektu pasiboak saldoa itzul diezaioten duen eskubidea, aipatutako urtearen azkeneko likidazio aldiaren aitorten-likidazioan eskatuz hori. Zerga-egoitzari dagokion Administrazioan aurkeztuko da, alegia, Gipuzkoako Foru Ogasunean. Azken hori da, beraz, itzultzeko eskumena duena. Nolanahi ere, ZAAEk aitortu zuenez, hutsune bat dago KELen, zehazki jasandako/jasanarazitako kuoten lekualdatzearen inguruan, zergadunaren zerga-egoitza aldatzen denean.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK:**

**1.** EIABAko 13. artikulua arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak garaiz eta behar bezalako formatuan aurkeztu du gatazka, eta Estatuko Administrazioari errekerimendua aurkeztu dio (Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren ZAAEko Ordezkaritza Nagusiari) du; azken horrek ere bere burua eskuduntzat hartu ez duenez itzultze eskaeraren inguruan, aipatutako araudiaren 13.1. artikuluko bosgarren eta seigarren paragrafoetan

aurreikusitako prozedura jarraitu da.

2. Errekurtsua EIABako 13.2. artikuluan aurreikusitako epearen barruan ipini da, eta inhibizio erreklamazioa justifikatzen duten arrazoibideak bete ez ezik, Estatuko Administrazioari egindako errekerimenduak aurkeztu dira, artikulua azken paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

3. Bada txikia eta zuzengarria den prozedurazko oztopo bat (ZAAEk alegatu ez duena, baina Arbitraje Batzordeak, EIABako 17. 3. artikulua araberan, bertan esku har dezakeena); izan ere, EIABako 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, gatazka dela-eta egindako idazkiarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dio aurkeztu Arbitraje Batzordeari aldundiak Eusko Jaurlaritzari gatazkaren aurkezpenaren inguruan egin behar dion jakinarazpenik. Haatik, *pro actione* printzipioari jarraiki, oztopo hori salbagarria dela deritzogu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 6an hartutako akordioaren bitartez erabaki baitzen aurkezpen hori, eta *pro bona fide* ondoriozta daiteke, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Gobernuak izango duela horren berri.

4. Prozesuari dagokionez, ezin da gatazka automatikotzat hartu, EIABako 13.3. artikuluan adierazpen horrek duen esanahiaren arabera. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundia izan da gatazka sustatu duena, ez du atzera bota, eta gatazka horren berri eman zaio zergadunari. Gainera, aipatutako artikulua ezarritako hilabete bateko epea aspaldi bukatu zen. Horren guztiaren ondorioz, Arbitraje Batzordeak ezin ditu erabili aipatutako arauak eman dizkion ahalmenak, alegia, gatazkan murgildutako administrazioei hura ebazteko beharrezkoak diren datuak eta aurrekariak eskatzeari buruzkoak.

5. EIABako 16.4. artikulua araberan, Arbitraje Batzordeko buruak gatazkaren espedientea jakinaraziko die kasuan kasuko tributu-administrazioei, baita gatazkaren prozeduran interesa dutenei ere. Hilabete bateko epea emango zaie denei, egoki irizten dizkieten alegazioak aurkez ditzaten; horrela egin du ZAAEk.

6. Nolanahi ere, eta horrek ez du esan nahi aurreko araua saihestu denik,

bada gatazka aurkeztu ostean eman zen gertaera berri bat. Arbitraje Batzordeak, 2008ko irailaren 13an izan zuen horren berri, (Erakundeak) eginiko idazki baten bitartez. Lehen aipatu dugun jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaz ari gara, hain zuzen, ZAAEk, 2008ko azaroaren 4an, “egun ez dago organo judizialaren epairik” hitzez hitz egindako alegazioetan baietsi zuena.

**7.** Arbitraje Batzordearen aurrean prozedura planteatu, onartu eta izapidetu ondoren emandako gertaera soil horrek Arbitraje Batzordea erabaki bat hartzera behar dezake. Geroago, ZAAEk egindako alegazioetan gatazka ez onartzeko arrazoitzat hartu zuen hori, eta espedientearekin batera, urriaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEAN) eskatutako errekerimendua aurkeztu zuen.

**8.** EIABAko 9. artikulua araberan, “Ez da inola ere aurkeztu ahal izango gatazkarik justizia-epaitegien aldetik jada ebatzita dauden edo ebazteke dauden gaiei buruz”. Bada, aipatutako arauak bi esanahi desberdin eduki ditzake puntu honetan: a) Logika juridikoan oinarrituta edo, hobeto esanda, araua hitzez hitz irakurrita ondorioztatu dezakeguna. Horren araberan, gatazka aurkeztu aurretik ebatzi behar da jurisdikzio-gatazka –gatazkaren planteamendua automatikoki bertan behera uztea dakar horrek, tasaturik dagoen oztopo prozesala baitago, KELn aurreikusi ez dena, bai ordea, EIABAn–; b) Bigarren interpretazioa, aztergai dugun gatazkan aplikagarria litzateke; gauzatu daiteke baldin eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik gatazka aurkeztu bazaio Arbitraje Batzordeari. Horrela, gatazka automatikoki ukatzea ezinezkoa da. Kasu horretan, gerora onartezintasunen bat sortzeko aukera dagoen ala ez zehaztu beharra dago, eta, horrek izan ditzakeen eraginak definitu behar dira, gatazkan murgildutako Administrazioek ez eta zergadunak berak ipini duenean errekurtsoa.

Horrekin batera, Arbitraje Batzordea behar bezala eratu ondoren egokitutako Auzitegi Gorenaren doktrina kontuan hartuz (2008ko uztailaren 10eko epaia, 2399/2006 errekurtsoa), ebazteke dagoen administrazioarekiko-auzi errekurtsoak (Erakundeak) aurkeztutako itzultze eskaera ukatzeko eskubidea onartu behar den ala ez den jorrazten du; ez da, ordea, ikuskatzeko jarduerak eteteari buruzkoa, etab. Badirudi horretan, hain zuzen, oinarritu daitekeela

sakoneko gaiaren inguruan erantzun bat emateko. Bestela, Arbitraje Batzordeari zuzenduko zaio gaia. Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak ezin du aurkeztutako gatazkaren inguruko erantzunik eman EAEANren aurrean ebazteke dagoen prozesua amaitzen ez den bitartean.

**9.** Arbitraje Batzordea ebazpen judzialen menpe dagoenez, gatazka hori izapidetzeko prozesua bertan behera utzi behar da nahitaez, EIABako 9. artikulua biltzen duen oztopo prozesala desagertzen ez den bitartean.

Bere ahalmenari jarraiki, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKI DU:**

16/2008 gatazka izapidetzeko prozesua bertan behera uztea, EIABako 9. artikuluan bildutako oztopo prozesala desagertzen ez den arte.

Ebazpenak administrazio bideei azkena eman die, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ez da jarri ahal, jakinarazpena jaso den hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, dagokion Auzitegi Gorenaren Salan, eta Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren 67. artikuluari jarraiki.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 30ean